

I don't get on with my sister  
Me llevo mal con mi hermana  
Gaizki moldatzen naiz ahizparekin



**ALBOAN**

ONG promovida por los jesuitas  
Jesuitak sustatutako enakundea



01



01

## ENGLISH

Oh, no!!!! She woke me up again!! That's the fifth time she's woke me up complaining: 'I need to use the toilet'... 'I'm hungry'... 'It's hot in here'... 'I had a nightmare'! I just can't take any more!

I'm talking about my sister Irina →she's a total nightmare. Ah! My name's Alma, I'm nine and I'm the one who sleeps on the top bunk.

## ESPAÑOL

¡¡Oh, no!! ¡¡Otra vez me ha vuelto a despertar!! Ya es la quinta vez que me despierta, ...que si tengo ganas de hacer pis... que si tengo hambre...que hace calor.... que he tenido una pesadilla...  
¡Esto es insoportable!

Os estoy hablando de mi hermana Irina, que es una auténtica pesada. ¡Ah! Yo me llamo Alma, tengo 9 años y soy la que duerme en la litera de arriba.

## EUSKERA

Ez!!! Berriz iratzarri nau!!! Bosgarren aldia da dagoeneko... Txizalarri naizela... Gose naizela... Bero dela... Amesgaiztoa izan dudala... Ezin da jasan!

Ahizpa Irinaz ari natzaizue, astun-astuna da. A! Nik Alma dut izena, 9 urte ditut eta goiko ohean egiten dut lo.





## ENGLISH

The truth is, when Irina was born I was delighted. A sister, at last! I couldn't wait for her to grow big enough to play with me.

Now she's 6 and, honestly, playing with her is tough. She's always breaking my stuff and insisting we play whatever she wants all the time!

She's really getting on my nerves. She's turned into a spoiled brat and a whinger. And when she wants something, she doesn't hesitate to kick and scream until she gets it! I hate when she does that, because I'm always the one who has to give in.

## ESPAÑOL

La verdad es que cuando nació Irina me puse muy contenta. ¡Por fin tenía una hermanita!. Tenía tantas ganas de que creciera para que pudiéramos jugar juntas.

Ahora tiene 6 años y, sinceramente, es difícil jugar con ella, porque me rompe todas mis muñecas y además ¡siempre tenemos que jugar a lo que ella quiere!

Cada vez le tengo más manía. Se ha convertido en una niña caprichosa y pedigüeña. Y cuando quiere algo no duda en gritar y patear hasta conseguirlo. Odio que se comporte así, porque al final, siempre soy yo la que tiene que ceder.

## EUSKERA

Egia esan, oso pozik jarri nintzen Irina jaio zenean. Ahizpatxoan nuen azkenik! Gogo handiak nituen haz zedin, elkarrekin jolasteko.

6 urte ditu orain eta, benetan, zaila egiten da harekin jolastea, jostailu guztiak apurtzen dizkidalako eta, gainera, beti jolastu behar dugulako berak esandakora.

Geroz eta ezinikusi handiagoa diot. Ume apetatsu bihurtu da, eske eta eske aritzen da beti. Eta zerbait nahi duenean oihuka eta ostikoka hasten da, lortzen duen arte. Gorroto dut horrela portatzea, azkenean, ni izaten naizelako beti amore eman behar izaten duena.



03



03

## ENGLISH

My dad works at home. But he's always really busy. Whenever I want to ask him something or I need him to help me figure something out with my sister, he says we'll talk about it later, he has to hand in his illustrations tomorrow and he can't get behind. So disgusting!

But if it's Irina crying, Dad gets straight up from his desk and gives her all the time in the world.

It's not fair.

## ESPAÑOL

Mi papá trabaja en casa. Pero siempre está muy ocupado. Siempre que quiero consultarle algo o pedirle ayuda para resolver algún problema con mi hermana, me dice que lo hablaremos más tarde, que tiene que entregar no se cuántos dibujos para mañana y no puede retrasarse.

En cambio, si es Irina la que llora, papá enseguida se levanta de su silla de trabajo y le dedica todo el tiempo del mundo.

No es justo.

## EUSKERA

Aitak etxean egiten du lan. Baina oso lanper-tuta dabil beti. Ahizparekin arazoren bat konpontzeko, zerbait kontsultatu edo laguntza eskatu nahi diodan guztietan, geroago hitz egingo dugula esaten dit, biharko ez dakit zenbat marrazki egin behar dituela eta ezin duela atzeratu.

Irinak negar egiten badu, aldiz, berehala altxatzen da lan-aulkitik eta munduko den-bora guztia eskaintzen dio.

Ez da bidezkoa.





## ENGLISH

Mum works outside and she always gets home late. When she arrives, she's tired and doesn't feel like talking. She says that work is doing her head in. I don't know what that means, but I'm worried about it.

I give her a hug, she gives me a kiss but as soon as I start telling her something, Irina comes along whining for something. Mum, of course, deals with her right away, as if she were the only person in the world... as if I didn't even exist.

## ESPAÑOL

Mamá trabaja fuera de casa y siempre llega tarde. Cuando vuelve está cansada y con pocas ganas de hablar. Dice que el trabajo le come muchas neuronas. Yo no sé qué es eso y me tiene un poco preocupada.

Yo le abrazo, ella me da un beso, y cuando quiero contarle mis cosas, siempre llega Irina lloriqueando por cualquier motivo. Por supuesto, mamá le atiende de inmediato como si fuera lo único en la tierra... como si yo no existiera.

## EUSKERA

Amak etxetik kanpo egiten du lan eta berandu itzultzen da beti. Etxera bueltatzean nekatuta egoten da, hitz egiteko gogo gutxiarekin. Lanak neurona asko jaten dizkiola dio. Nik ez dakit zer den hori, eta apur bat kezkatuta nauka.

Nik besarkada ematen diot, hark niri muxua eta nire gauzak kontatu nahi dizkiodanean, Irina etortzen da zerbaitegatik negar egiten. Jakina, amak segituan egiten dio kasu, munduko gauza bakarra balitz bezala... existituko ez banintz bezala.







## ENGLISH

Mum says that Irina loves me so much, but that's not how it seems to me. I'm convinced that Irina does lots of things just to get Mum and Dad's attention all the time. She thinks they'll love her more that way. And the truth is she annoys me the whole time.

She never asks permission to borrow my things. –Come on, Alma, lend her the toy! It'll only be a minute!– Dad says while Irina sobs and sobs. I tell him it's mine but he just says that in our house everything belongs to everybody.

My witch of a sister gives me a sneaky smile with the toy in her hands.

And she does that same thing with my dolls, my colouring pencils, everything!

## ESPAÑOL

Mi mamá me dice que Irina me quiere mucho, aunque a mí no me lo parezca. Yo estoy segura de que Irina hace muchas cosas para atraer la atención de papá y mamá. Cree que así le quieren más. Y lo que consigue es fastidiarme a mí todo el rato.

Nunca me pide permiso para coger mis cosas. –¡Vamos Alma, déjale la máquina! ¡Será solo un momento!– dice papá entre sollozos y lágrimas de Irina..

La bruja de mi hermana me sonríe maliciosamente con la máquina en sus manos.

Y lo mismo ocurre con mis muñecas, mis pinturas, etc....

## EUSKERA

Amak esaten dit Irinak asko maite nauela, niri kontrakoa iruditzen zaidan arren. Ziur nago Irinak gauza asko egiten dituela amaren eta aitaren arreta uneoro erakartzeko. Uste du gehiago maite izango dutela horrela. Eta lortzen duena ni behin eta berriz gogaitzea da.

Ez dit sekula baimenik eskatzen nire gauzak hartzeko. –Tira Alma, utzizu makina! Unetxo bat baino ez da izango!– dio aitak Irinaren zotin-malkoen artetik. Nirea dela esaten diot eta aitak erantzuten dit etxeko guztia dela guztiona.

Ahizpak irribarre maltzurraz begiratzen dit, makina eskuan duela.

Eta gauza bera gertatzen da nire panpinekin, pinturrekin, etab.



06



06

## ENGLISH

She messes up my room and Mum always tells me to tidy it up because I'm the eldest.

And I hate the chewing noises she makes when we're eating. She dirties her whole face and she eats with her mouth open.

One day I put on Dad's mp3 earphones so I wouldn't have to listen to her, but Dad wouldn't let me listen to music at the dinner table.

## ESPAÑOL

Lo deja todo desordenado en la habitación y mamá siempre me dice a mí que lo recoja yo porque soy la mayor.

Tampoco soporto los ruidos que hace con la boca al masticar cuando estamos comiendo. Se ensucia toda la boca y mastica con la boca abierta. ¡Qué asco!

Un día me puse los auriculares de mi mp3 para no escucharla, pero papá me prohibió escuchar música en la mesa.

## EUSKERA

Dena desordenaturik uzten du eta amak niri agintzen dit beti dena jasotzeko, nagusia naizela esanda.

Jaten ari garenean ahoarekin egiten dituen zaratak ere gorroto ditut. Mutur osoa zikintzen du eta ahoa irekita duela murtxikatzen.

Behin, mp3-aren aurikularrak jarri nituen ez entzuteko, baina aitak musika entzutea debekatu zidan mahaian gauden bitartean.





## ENGLISH

One day we went to visit Granny and Granddad after their holiday. Mum and Dad told us that they had brought us back some presents and we were going to pick them up.

When we got Granny and Granddad's house, Irina ran straight into their arms. She hugged them and kissed them, 'I love you Granny and Granddad, I love you so much', she said over and over.

'Where are the presents?' 'What did you bring me back?'

And before Granddad could even open his mouth, Irina had already leapt onto the couch where the unopened presents were waiting. And she opened them all... EVERY ONE!

—'You've opened my one too!'

## ESPAÑOL

Un día papá y mamá nos dijeron que debíamos ir a casa de los abuelos para recoger unos regalos que nos habían traído de sus vacaciones.

Cuando llegamos su casa, Irina corrió rápidamente a sus brazos. "Os quiero mucho abuelos" les repitió sin parar. "¿dónde están los regalos? ¿Qué me habéis traído?"

Y casi sin que a mi abuelo le diera tiempo a contestar, Irina ya se había lanzado al sofá donde estaban los paquetes. Empezó a abrirlos todos sin saber cuál era el suyo. Abrió ¡TODOS!

—¡Has abierto el mío también!

## EUSKERA

Oporretatik itzultzean, aitona-amonak bisitatzera joan ginenean egin zidana ere kontatu behar dizuet. Gurasoek esan ziguten aitona-amonak opari batzuk ekarri zizkigutela eta euren etxera joan behar genuela jasotzera.

Aitona-amonen etxera iritsi ginenean, Irina euren besoetara bota zen korrika. Besarkada indartsuak, muxuak... "Asko maite zaituztet, pila bat" errepikatzen die. "Zer ekarri didazue?"

Eta aitona-amonen erantzuteko denborarik eman gabe ere, katuen antzera egiten du jauzi sofara, opariak zain ditugun lekura. Jaten duen jatuntasun berarekin, guztiak irekitzen ditu. GUZTIAK!

— Nirea ere ireki duzu!





## ENGLISH

Granny hugged me and gave me a kiss, she tried to console me. She took my hand and brought me to the terrace. We sat on a bench beside some flower pots.

-I think that Irina behaves like that because she wants to be the centre of attention. She wants everyone to listen to her. - I said to Granny:

She was the only person who knew how to listen to me.

She looked into my eyes and she said that I had to make an effort to get on with Irina; that she's still little and needs more attention from Mum and Dad. Then she said I was still her princess and I always would be. She made me feel really good because she understood me.

## ESPAÑOL

La abuela me abrazó y me dio un beso, tratando de consolarme. Me cogió de la mano y me llevó a la terraza. Nos sentamos en un banquito junto a unas macetas llenas de flores.

-Yo creo que Irina se comporta así porque quiere ser la protagonista de todo. Quiere que solo le hagan caso a ella. - le dije a la abuela.

Mirándome a los ojos me dijo que yo debía hacer un esfuerzo por comprender a Irina, que ella es aún pequeña y necesita más atención de papá y mamá. También me dijo que yo seguía siendo su reina y que lo iba a ser para siempre. Ella era la única persona que sabía escucharme. Me hizo sentir muy bien por que ella me comprendía.

## EUSKERA

Amonak besarkada eta muxu bana eman zizkidan, kontsolatzeko asmoz. Eskutik heldu, eta terrazara eraman ninduen. Lorez betetako loreontzien ondoko bankutxoan eserri ginen.

- Uste dut Irinak horrela jokatzeko badu, gauza guztien protagonista izateko gogoetatik dela. Arreta guztia berarentzat nahi du – esan nion amonari.

Entzuten zekien pertsona bakarra zen. Begietara begira esan zidan Irina ulertzeko ahalegina egin behar nuela, oraindik txikia delako eta gurasoen arreta gehiago behar duelako. Amonarentzat erregina izaten jarraitzen nuela eta beti izango zela horrela ere esan zidan. Oso ongi sentiarazi ninduen, ulertzen ninduelako.







## ENGLISH

Beside our house there's a really big park with lots of trees and flowers. It's a perfect place to go and play.

–Alma, take care of your sister, you know she's still not great on the bicycle', Mum said.

–Yes, Mum,' I said, begrudgingly. I was so annoyed! I don't like having to take care of the little horror. She never pays any attention to me when we're on our own.

I prefer to be alone, having fun on my skateboard. Racing against the boys to see who can jump the highest.

## ESPAÑOL

Al lado de nuestra casa hay un parque muy grande con muchos árboles y flores. Es un lugar perfecto para ir a jugar.

–Alma, cuida de tu hermana, ya sabes que todavía no maneja muy bien la bicicleta" me dijo mamá.

– Síiii, mamá," le dije yo, a regañadientes. ¡Qué rabia! No me hacía ninguna gracia estar al cuidado de esa enana. Y es que no me hace ningún caso cuando estamos solas.

Yo prefería estar a mi aire, disfrutando de mi monopatín. Y compitiendo con los chicos por ver quién daba el salto más grande.

## EUSKERA

Etxearen ondoan parke handia dugu, zuhaitz eta lore askorekin. Jolasteko toki paregabea da.

–Alma, zaindu ahizpa, badakizu oraindik ez duela bizikleta ongi menperatzen - esan zidan amak.

–Baaaai, ama – esaten diot nik, gogo txarrez. Nolako amorrua! Ez zidan batere graziazarik egiten nano hori zaintzeak. Ez dit batere kasurik egiten bakarrik gaudenean.

Nik neure kaxa ibiltzea nuen nahiago, monopatinez gozatzea. Mutilekin lehiatu nahi nuen, ea nork ematen zuen saltorik handiena.





## ENGLISH

After a good long time, we heard Dad's voice. He was on his way to the park with a bag of sweeties in his hand.

Irina leapt up and darted towards him. As always, she wanted to get there first. I was sick and tired of her games and I really wanted to teach the little brad a lesson.

So, I sped up as fast as I could so she wouldn't beat me to him. I overtook her no problem, but Irina wasn't giving up that easily.

"I want to be first!!!"

## ESPAÑOL

Al de un buen rato, oímos la voz de papá que se acercaba al parque con una bolsa de chuches en la mano.

Irina dió un brinco y salió disparada, con el fin, como siempre, de llegar la primera. Yo ya estaba harta de estos juegucitos, y sentí la necesidad de darle a esa mocosa un escarmiento.

Así que, aceleré al máximo para que no me ganara. Le rebasé sin problemas, pero Irina no se daba por vencida tan fácilmente.  
"¡Yo quiero llegar la primera!!!"

## EUSKERA

Nahikoa denbora igaro zenean, aitaren ahotsa entzun genuen, parkera gerturatzen eskuan litxarreriaz betetako poltsa zekarrela.

Irinak salto egin eta ziztu bizian atera zen, beti bezala, lehena izateko asmoz. Ni nazkatuta nengoen jolasekin eta mukizuari eskarmentua emateko beharra sentitu nuen.

Ahal beste azeleratu nuen, lehena iristeko: Arazorik gabe aurreratu nuen, baina Irinak ez zuen erraz amore emango...  
"Lehena iritsi nahi dut!!!"





## ENGLISH

-Girls!! Careful!!- shouted Dad.

Irina was catching up on my right when, almost without thinking about it, I decided to turn around suddenly and block her way so she couldn't get past me. That was when Irina lost control of her bicycle and fell with a clatter to the ground.

I just thought: 'She got what she deserves.'

## ESPAÑOL

-¡¡Chicas!! ¡¡Suave, suave!!- gritaba papá.

Irina se estaba acercando rápidamente por mi derecha, cuando casi sin pensarlo decidí girar bruscamente y cerrarle el paso para que no me adelantara. En ese instante Irina perdió el control de su bicicleta y cayó al suelo violentamente.

Yo pensé: "Se lo tiene merecido".

## EUSKERA

- Neskak!!! Astiro, astiro!!!- oihukatzen zuen aitak.

Irina eskuinetik gerturatzen ari zitzaidan, bizkor eta, ia pentsatu gabe, bat-batean biratzea erabaki nuen, bidea moztu eta ez aurreratzeko. Une hartan, Irinak bizikletaren kontrola galdu zuen eta lurrera erori zen.

Pentsatu nuen: "Merezita dauka."





## ENGLISH

Moments later, we were at the hospital.

Crying in mum's arms: 'It hurts, it really hurts' she said, 'Alma really hurt me.' 'I'm just glad you were wearing your helmet'- Mum said.

I couldn't take it. I sat on a chair, in a corner of the room, thinking: 'Here she goes again, trying to turn Mum and Dad against me.'

## ESPAÑOL

A los pocos minutos, ya nos encontrábamos en el hospital.

Irina, estaba tumbada en la camilla y con la pierna escayolada. Lloriqueando en los brazos de mamá: "Me duele mucho, me duele mucho" "Alma me ha hecho mucho daño".  
- "Y menos mal que llevabas el casco puesto"- decía mamá.

Yo no lo podía soportar. Sentada en una silla, en un rincón de la habitación, pensaba: "Otra vez está poniendo a mamá y a papá en mi contra."

## EUSKERA

Minutu gutxi batzuen buruan, ospitalean ginen.

Irina ohean etzanda zegoen, hankan igeltsua jarrita. Amaren besoetan negarrez ari zen: "Min handia dut, min handia" "Almak min handia eman dit." "Eta eskerrak kaskoa jarrita zenuela"- zioen amak.

Ezin nuen jasan. Aulki batean eserita, gelaren bazter batean, zera pentsatzen nuen: "Berriz ere gurasoak nire kontra jartzen."







## ENGLISH

I decided to go out into the hallway, I turned and saw an enormous bunch of flowers approaching. It was Granny. I ran to her arms and asked her not to be angry with me for what I had done.

'I know what happened. Your father told me everything', she said 'and I don't blame you. I know that you're a good girl and you feel really bad about what you have done. You need to let go of the pain you're feeling and let go of the hate your sister feels towards you. What you need to do now is apologise.'

I looked into her eyes and she looked into mine. She dried my tears with her handkerchief.

## ESPAÑOL

Decidí salir al pasillo. Giré la mirada y ví cómo se acercaba un enorme ramo de flores. Era la abuela. Yo corrí a sus brazos y le pedí que no se enfadara conmigo por lo que había hecho.

"Ya sé lo que ha pasado. Papá me lo ha contado todo-dijo ella- y no te culpo por ello. Yo sé que tú eres una buena chica y te sientes muy mal por lo que has hecho. Debes liberarte del dolor que sientes y debes liberar a tu hermana del odio que siente hacia ti. Ahora lo que debes hacer es pedir perdón.

Yo le miré a los ojos y ella me miró a mí. Me secó las lágrimas con un pañuelo.

## EUSKERA

Pasabidera irtetea erabaki nuen. Alde batera begiratu eta lore sorta erraldoia etortzen ikusi nuen. Amona zen. Haren besoetara bota nintzen, egindakoagatik ez haserretzeko eskatzen niola.

"Badakit zer gertatu den. Aitak dena kontatu dit -esan zuen - eta ez dizut errurik botatzen. Badakit neska zintzoa zarela eta oso gaizki sentitzen zarela egindakoagatik. Sentitzen duzun minaz askatu beharra duzu, baita ahizpa ere, zureganako gorrotoaz. Barkamena eskatu behar duzu orain.

Begietara begiratu genion elkarri. Malkoak lehortu zizkidan zapi batez.





## ENGLISH

It was going to be very hard for me to apologise to Irina.

Granny went into the hospital room and straight away I could hear my sister's bawling: 'Granny, Granny! Look what Alma has done to me!' Granny gave the bunch of flowers to Mum to put in a vase and went over to Irina. She stroked her hair affectionately: 'Did you stop to think why your sister would do such a thing? She loves you and she's very sorry for what has happened. What's more, she thinks that you don't love her.'

Something shifted in Irina's heart in that moment. I think she realised how mean she had been to me up till then.

## ESPAÑOL

Para mí iba a ser muy difícil pedirle perdón a Irina.

La abuela entró en la habitación saludó a papá y mamá y se acercó a Irina" i Abuela, mira lo que me ha hecho Alma! Le pasó la mano por el pelo cariñosamente y le dijo: -"¿ Te has parado a pensar por qué ha podido hacer esto tu hermana? Ella te quiere mucho y siente mucho dolor por lo que ha pasado. Además, ella cree que tú no la quieres.-"

Algo se removió en el corazón de Irina. Creo que se dio cuenta de lo mal que se había portado conmigo hasta ahora.

## EUSKERA

Oso zaila egingo zitzaidan Irinari barkamena eskatzea.

Amona gelan sartu bezain laster, ahizparen negarrak entzuten hasi nintzen. "Amona, amona, begira zer egin didan Almak!" Amonak lore sorta amari utzi zion, loreontzi batean sar zezan, eta Irinarengana gerturatu zen. Ilea txeraz laztandu zion eta esan: "Pentsatu al duzu inoiz zergatik egin ote dizun hau ahizpak? Asko maite zaitu eta min handia ematen dio gertatutakoak. Gainera, maite ez duzula uste du."

Irinaren bihotzean zerbait irauli zen. Uste dut une horretan ikusi zuela orain arte nirekin zein txarto portatu zen.





## ENGLISH

I went into the room and slowly walked over to Irina. I found it a little hard to talk. 'Irina, I want you to forgive me. I feel really bad about what I've done.' I looked up and saw that my sister was looking at me with tears in her eyes. Then she said: 'I'm sorry too. I'm not going to be mean to you anymore. You are the best sister I could ever have.'

We hugged each other tight.

'And so that we never forget this moment- Granny added- I want you to sign your promise of sisterhood on the plaster cast.'

We all laughed, because not only did my sister and I sign the cast, but my Dad drew us a beautiful drawing too.

## ESPAÑOL

Entré en la habitación y me dirigí hacia Irina. Me costó un poco empezar a hablar. - "Irina, quiero que me perdones. Me siento muy mal por lo que he hecho-" Levanté la mirada y vi que mi hermana me miraba con lágrimas en los ojos. Entonces me dijo: -"Yo también lo siento. No voy a ser mala contigo nunca más. Eres la mejor hermana que podía tener.-"

Nos abrazamos fuerte.

"Y para que no nos olvidemos de este momento- añadió la abuela- quiero que firméis vuestro compromiso de buenas hermanas en la escayola.-"

Todos nos reímos mucho, por que además papá nos hizo un dibujo muy bonito.

## EUSKERA

Gelan poliki sartu eta Irinarengana gerturatu nintzen... Apur bat kostatu zitzaidan hitz egiten hastea. "Irina, barkamena eskatu nahi dizut. Oso gaizki sentitzen naiz egindakoagatik." Begiak jaso eta ahizpak begi bustiekin begiratzen zidala ikusi nuen. Orduan, zera esan zidan: "Nik ere sentitzen dut. Ez naiz sekula berriz zurekin gaizki portatuko. Munduko ahizparik onena zara."

Indarrez besarkatu ginen.

"Eta une honetaz ahaztu ez gaitezen – erantsi zuen amonak – ahizpa onak izateko konpromisoa igeltsuan sinatzea nahi dut.

Barre handiak egin genituen guztiok, ahizpak eta biok sinatzeaz gain, aitak marrazki polita egin zigulako.



I don't get on with my sister  
Me llevo mal con mi hermana  
Gaizki moldatzen naiz ahizparekin



**ALBOAN**

ONG promovida por los jesuitas  
Jesuitak sustatutako erakundea



Autoría: Enrique Morente. Montaje: Erreka Multimedia. Edita: ALBOAN - [www.alboan.org](http://www.alboan.org)  
Se autoriza la reproducción parcial de esta obra, siempre que no tenga fines comerciales y la fuente sea citada.